Herri Ametsa
Ikastola
*Ikastola txikia, familia handia*

# AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 58. alea | DATA: 2025/12/19

## GUREAN

### GABONAK BADATOZ!

Gabonak ospatzeko egun gutxi falta den honetan, baina aurretik San Tomas agertzen da gure egutegian. Gaur txistorra pintxoak dastatzeko aukera izan dugu ikastolan. Egun berezia da, benetan. Olentzero eta Mari Domingiren bisitaz gain, Gabon Kantek eta kirolak ere protagonismoa hartu dute. “Hator hator” eta “Olentzero eta astoa” maila guztietako ikasleek abestu dute elkarrekin eta, ahotsa berotu ondoren, gorputzari eman diogu egurra. Brilean eta futbolean aritu da bat baino gehiago. Giro ederra eta alaia bizi izan dugu gaurkoan, baina hau ez da hemen bukatzen... Bihar Santomasak ospatzen jarraituko dugu Altzan, eta igandean, Donostiako Gipuzkoa Plazan.  Zuen zain egongo gara! Zorionak eta Urte Berri On!



## GURE INGURUAN

### SANTOMASAK

**NOIZ: ABENDUAK 20**
**NON: ALTZA**




Gure dantzariek eta DBHko 4. mailako ikasleek hartuko dute parte Santomasetan. 10:00etatik aurrera txistorra jateko eta sagardoa edateko postua irekita egongo da Larratxoko Josu Artetxe plazan. 13:15ean gure dantzariek emanaldia eskainiko dute plazan bertan. Horretaz aparte, trikitilariak, Goazen! Euskaraokea, babarrun-jana eta Elektrobuiaka kontzertua egongo dira.

## BAZENEKITEN?




**DONOSTIAKO SAN TOMASEKO FERIAN ERE HARTUKO DUTELA PARTE GURE IKASLEEK?**

Igande honetan, DBHko 4. mailako ikasleak zuen zain egongo dira Gipuzkoa plazan. Postua 10.a da. Anima zaitezte!